

Urtzi Altuna Arzelus

D maila • 2 saria

Kaixo!! Urtzi izeneko mutikoa nauzue. Ormaiztin jaio nintzen, nahiz eta orain beasaindarra izan. 12 urte ditut eta kirola egitea gogoko dut. Ipuin honetan zehar nire haurtzaroko sentimenduak idatziz transmititu ditut, eta asko gustatu izana espero dut. Hurrengo arte!



BESTE BAT BESTERIK EZ DA

Bazen Alex izeneko mutiko bat eskolan nahiz kalean bere "lagunek" jo egiten zutena. Umea Gasteizen bizi zen, bere familiarekin. Ez zeukaten diru asko, baina Alex oso azkarra zen eta amets asko zituen betetzeko. Egunero eskolarako bidean bakarrik uzten zuten, eskolako taldelanetan ez zioten kasurik egiten eta berarengandik urruntzen ziren. Atarietan ez zioten haiekin batera jolasten uzten, eta gerturatzen zen bakoitzean, joka hasten zitzaizkion.

Eguna bakarrik pasatzen zuen, eta arratsaldean etxera iristean, gurasoak lanean zebiltzanez, hantxe egoten zen negarrez, bere buruari, "Zergatik niri, zergatik" galdetuz. Gero eta tristeago sentitzen zen eta konturatzen zen. Berak bi pertsona mota ezagutzen zituen, iraindu eta mintzen zituzten pertsonak, eta hori ikusita gauza errazena egiten zutenak, isilik geratu.

Bada, bere ikasketak okerragotuz joan ziren, ezin zuelako kontu hori burutik kendu. Mutikoak ez zuen adineko baten laguntzarik, eta ez zuen bere gurasoekin harremanik izaten. Ez zen gai norbaiti bere sentimenduak adierazteko eta bere burua defendatzeko. Irakasleek atarian ikusten zuten sufritzen, eta isilik geratzen ziren, nahiz eta Alexek laguntza eskatu. Hauxe izan ohi zen betiko esaldia:

-Adina duzu zeure burua zaintzeko eta defendatzeko, eta problemaren bat baduzu, gurasoekin berba egin, eta konpondu.

Hori zen mutikoa benetan mintzen zuena, bere gurasoekin harremanik ez zuela jakitea.

Egun batean, arratsaldean, bere gelan sartuta, negarrez ari zenean, ama lanetik etorri zen, janaria ahaztu zuela esanez. Eta mutikoa negarrez ikusi zuenean, gauean hitz egingo zutela esan, eta korrika eta presaka joan zen.

Gaua iritsi zen, eta ohera joaterakoan, ama etorri zitzaion eta bere ondoan eseri zen, zer gertatzen zitzaion galdetuz:

- Zer duzu, pottoko?

- Laguntza behar dut, bakarrik sentitzen naiz, eta ezin ditut egunean zehar gertatzen diren gauza guztiak norbaiti esan, laguntza emango didan asmoz.

- Eta zergatik ez diguzu aitari eta niri laguntza eskatu? Zuri laguntzeko prest baikaude.

- Egun osoa lanean pasatzen duzue, eta zuekin mintzatzen dudan momentu bakarra, goizean esnatzerakoan eta gauean ohera joatean da.

- Hauxe proposatuko dizut: arratsaldean, libre zaudenean, idatzi egunean zehar egin dizkizuten gauza guztiak, eta ondoren, kaxa batean gorde itzazu orriak.

Mutikoak, amak esandakoa bete zuen, eta pixkanaka-pixkanaka, kaxa betez joan zitzaion. Gero eta lasaiago sentitzen hasi zen. Eguneroko hori idazteak bere sentimenduak azaleratzen lagundu ziolako. Denbora pasatu ahala, lagun berriak egiten hasi zen, eta besteei kasurik ez egiten ikasi zuen.

Alex, unibertsitatera iristean, kuadrilla izugarriarekin zegoen, denak bata besteari laguntzen, eta ez zen inor bakarrik sentitzen. Egun batean, mutikoak istorio hura bere lagunei kontatzea erabaki zuen, eta urtearen amaieran, San Joan suan kaxa hartu eta sutara bota zuten, iragana alde batera utziz.

Azkenik, bere bizitza pozez bizitzen ikasi zuen, lan on batekin, familia polit batekin eta edozein momentutan laguntzeko prest zeuden lagun askorekin.